



UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO IKASTAROAK

HAUR ETA GAZTE LITERATURA: BITARTEKARITZAREN ESTRATEGIAK ETA PRAKTIKAK (6. ED.)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2024/2025

ARLOA: Arteak eta Humanitateak

KREDITUAK: 6,50 ECTS(*) kreditu

MATRIKULA TASA: 150,00 € (Asegurua 4,00 €)

ARDURADUN AKADEMIKOA: Alexander Gurrutxaga Muxika (EHU) eta Miriam Luki Albisua (Galtzagorri).

AURKEZPENA

Haur eta Gazte Literatura Eskolan ikastaroa bost urtez egin ondoren — Gipuzkoako eta Arabako EHUko campusetan—, ikastaroa berritzeko unea iritsi da. Batetik, haur eta gazte literaturaren bitartekariak hezkuntza esparruaz harago aritzen direlako. Bestetik, bitartekaritza ardatz hartuko duen ikastaro praktiko bat egiteko beharra sumatu dugulako. Hala, ikastaro berriak, aurretik egindako ikastaroan jasotako jakintza eta eskarmentua aintzat hartuta, programa berria eskainiko du, bitartekariei ahotsa eman eta beste bitartekariak trebatzeko espazioa sortuz.

ZURE BILA GABILTZA

Ikastaro honek Haur eta Gazte Literaturan sakondu eta bitartekaritzaren gaur egungo joerak ezagutzeko aukera emango dizu. Bitartekariak (idazleak, ilustratzaileak, kontalariak...) ezagutzeko parada izango duzu, eta haiekin esperientziak eta jakintzak partekatzekoa. Ikastaroa praktikoa izango da batez ere, eta, amaitutakoan, ikuspegi global sakona eskuratuko duzu, baliagarri izango zaizuna etorkizuneko lanbide eta jardueretan.

IRTEERA PROFESIONALAK

- Irakaskuntza esparru guztiak
- Bibliotekaria
- Bitartekaritza: sorkuntza, kudeaketa, sustapena, etab.

BALDINTZAK

Ez dago baldintzarik.



Nori zuzenduta?

1. Irakaskuntzan diharduten maisu-maistrak eta hezkuntzaren munduko bitartekariak oro har, irakasle izateko ikasketan egiten ari direnak barne.
2. Bitartekaritza beste esparru batzuetan egiten duten irakurle, liburuzain, guraso, sortzaile —izan ipuin kontalari, idazle, ilustratzaile, antzerkigile, aktore edota haurrekin zein gazteekin bitartekaritza ari den sortzaile— edo gaiarekiko interesa duen norbanako.

IRAKASKUNTZA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2025/01/8tik 2025/04/09ra

EMATEKO TOKIA: Presentziala: Hezkuntza eta Filosofia Fakultatea - HEFA II.
Oñati Plaza, 3. 20018 Donostia-San Sebastián.

HIZKUNTZA: Euskera.

INFORMAZIOA/IZEN-EMATEA

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika
Saila

HELBIDEA: Oñati Plaza, 3. 20018 Donostia-San Sebastián

TELEFONOA: 946 01 7522; 945 01 4190

POSTA ELEKTRONIKOA: laura.mintegi@ehu.eus; alexander.gurrutxaga@ehu.eus

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.